**1.- Deialdiaren oinarriak:**

Deialdi honen oinarri orokorrak eta espezifikoak 2022/12/30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (247. zk.) argitaratuta daude. Iragarki guztiak esteka honen bidez eskura daitezke:

https://www.donostia.eus/app/info/ciudadano/oferta_empleo.nsf/vowebContenidosId/NT00000A6A?OpenDocument&idioma=eus&id=C671670510790&cat=Donostia%20Kultura&subcat=Procesos%20de%20estabilizaci%F3n%20excepcionales%20y%20especiales&doc=D

Era berean, deialdi honen oinarri orokorren eta espezifikoen laburpena erantsi zaio argitalpen honi.

**2.- Izen ematea**

Inskripzioak bi atal ditu, eta ezinbestekoa da biak osatzea deialdian izena emanda geratzeko.

**1. atala.- Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidea**

Eskatutako datuak sartu behar dira.

**2. atala.- Alegazioa eta merezimenduak egiaztatzea:**

**Oinarri espezifikoak** **Atala / Kategoria**

**Lanbide-esperientzia**

**3.1. Lanbide esperientzia**
(Oinarri orokorrak 8.2.1.)

| | | |
|---|---|---|
| **a) Atala** | | **Kategoria:** Donostia Kulturan egindako zerbitzuak, deialdiaren xede den lanpostuan.<br><br>Sartu lerro bat eten gabeko epe bakoitzeko |
| **b) c) y d) Atalak** | | **Kategoria:** Administrazio publikoan emandako beste zerbitzu batzuk<br><br>**Mota aukeratu:**<br><br>b) Donostia Kulturan emandako zerbitzuak deialdiaren xedea den lanpostuaren sailkapen azpitalde bereko beste lanpostuetan<br>c) Beste udal-administrazio publiko batzuetan emandako zerbitzuak, deialdiaren xede den lanpostu berdinean edo baliokidean.<br>d) Beste edozein administrazio publiko batzuetan emandako zerbitzuak, deialdiaren xede den lanpostu berdinean edo baliokidean<br><br>Mota bakoitzaren barruan, lerro bat sartu eten gabeko epe eta lanpostu bakoitzeko. |

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián

**T.** (0034) 943 481 150 F. 943 483 900 **E.** donostiakultura@donostia.eus

**www.donostiakultura.eus**

**Oharra:**

Hautagaiak senideak zaintzeko edo genero-indarkeriagatiko eszedentzian egon diren denbora, amatasuna eta aitatasuna babestea helburu duten lanaldi-murrizketei edo baimenei egotz dakiekeen denbora, edo bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa modu arduratsuan bateratzea erraztea, bai eta genero-indarkeriagatiko baimenak erabili dituzten denbora ere, %100ean sartu behar dira. Inguruabar horiek behar bezala egiaztatu behar dira.

## Formakuntza eta beste batzuk

### 3.2. Hautaketa-prozeduretan probak gainditzea eta lan-poltsetan egotea.

(Oinarri orokorrak 8.2.2.)

| | | |
|---|---|---|
| 1. Hautaketa-prozeduretan probak gainditzea. | | **Kategoria**: Hautaketa-prozesuak gainditzea<br><br>**Mota aukeratu**:<br><br>- Oposizio-faseko ariketa baztertzaile guztiak gainditzea. Donostia Kultura-deitutako lanpostua.<br>- Oposizio-faseko ariketa baztertzaile guztiak gainditzea. Donostia Kultura-talde bereko beste lanpostu batean.<br>- Oposizio-faseko ariketa guztiak gainditzea beste edozein administrazio publikotan. sailkapen-talde edo kategoria bereko lanpostu batean. |
| 2.- Lan-poltsan egotea | | **Kategoria:** Lan-poltsetan egotea<br><br>**Mota aukeratu:** Deialdiaren xede den lanpostuari dagokion indarrean dagoen Donostia Kulturako lan-poltsan egotea edo deialdiaren xede den lanpostua betetzea gutxienez 2016/01/01etik. |

| | | |
|---|---|---|
| **3.3. Prestakuntza akademiko ofiziala**<br><br>(Oinarri orokorrak 8.2.3.) | | **Kategoria:** Tituluak<br><br>**Mota aukeratu:** Lanpostuaren baldintza den baino goragoko titulazioa aukeratu, edo kategoria berekoa, eskakizun gisa egiaztatutakoa ez bada. |

| | | |
|---|---|---|
| **3.4. Hizkuntzak**<br><br>(Oinarri orokorrak 8.2.4.) | | **Kategoria:** Hizkuntzak<br><br>**Mota:** Aukeratu d(it)uzun hizkuntza/k eta maila/k |

| | | |
|---|---|---|
| **3.5. Emakume eta gizonen berdintasunari buruzko prestakuntza**<br><br>(Oinarri orokorrak 8.2.5.) | | **Kategoria: Ikastaroak**<br><br>**Mota aukeratu:** Ikastaroa aukeratu, iraupena-ren arabera. |

| | | |
|---|---|---|
| **3.6. Informatika ezagutzak.**<br><br>(Oinarri orokorrak 8.2.6.) | | **Kategoria:** Informatikako ezagutzak<br><br>**Mota aukeratu**:<br><br>- IT txartelak oinarrizko maila<br><br>- IT txartelak maila aurreratua edo bakarra<br><br>Mota aukeratu ondoren, deskribapena eremuan goitibeherako bat irekiko da alegatu nahi diren txartel zehatzak aukeratzeko |

Atal bakoitzaren barruan (Lan-esperientzia/Prestakuntza eta beste batzuk), Kategoriaren ezkerraldeko gezi urdina hautatuta, goian txertatu edo behean txertatu eskatuko dugu, kategoria bakoitzeko merezimenduak gehitzeko.